

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako mikologiaren orainari eta etorkizunari buruz gogoeta egiteko jardunaldi batzuk izango dira Ultzamako parke mikologikoan asteazken eta ostegun honetan

Ingurumeneko zuzendari nagusiak hasiko ditu baliabide honen hamargarren urteurrena dela eta antolatutako saioak

Asteartea, 2017.eko irailak 12

Asteazken eta ostegun honetan II. Jardunaldi Mikologikoak izango dira Ultzamako parke mikologikoan, Nafarroako mikologiaren orainari eta etorkizunari buruz gogoeta egiteko helburuarekin. Estatu mailako adituak eta profesionalak bilduko dira Larrainzarren, baliabide mikologikoen bilketaren eta kontserbazioaren arteko orekan eta komertzializazio iraunkorrean sakontzeko.

Ultzamako Udalak antolatutako jardunaldiek Nafarroako Gobernuaren finantzazioa izan dute, eta Ingurumen eta Ur Zuzendari Nagusi Eva García Balaguerrek inauguratuko ditu.

Ultzamako parke mikologikoa Nafarroak duen mota honetako baliabide bakarra da eta 2017ko irailaren 13an ireki zen. Urte hauetan 30.333 baimen eman ditu, eta horietatik, 23.301 egunerokoak dira, 3.204 urtekoak atzeritarrentzat, 2.964 urtekoak auzokoentzat, eta 1.044 zientifiko eta didaktikoak. Lortutako diru-sarrera guztiak parkea hiru helbururekin kudeatzeko bideratu dira: masifikazioa eta gehiegizko ustiapena saihestea; jardunbide egokiak zabaltzea eta ekonomia sortzea, sortutako enplegu zuzenaren eta haranaren turismo-dinamizazioaren bidez.

Saioak

Jardunaldien izenburua "Baliabide mikologikoari balio ematea eta



10 URTE ANOS
PARQUE MICOLÓGICO DE ULTZAMA
ULTZAMAKO PARKE MIKOLÓGIKOA

II Jornadas micológicas
II Jardunaldi Mikologikoak

**Puesta en valor y conservación
del recurso micológico**

**Baliabide mikologikoari balio
ematea eta kontserbatzea**

13-14 de septiembre de 2017
2017ko irailaren 13 eta 14a

Ultzamako Udala Ayuntamiento de Ultzama

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra
Landa Garapene, Ingurumeneko Departamento de Desarrollo Rural,
eta Toki Administrazio Departamentua Medio Ambiente y Administración Local

Utzama garapen
Utzama garapen
Utzama garapen

Ultzamako jardunaldien berri ematen duen kartela.

kontserbatzea" da eta Estatu mailako adituak eta profesionalak bilduko dira, benetako kasuak azaltzeko.

Bihar, asteazkena, "nola bildu kontserbatuz" izango da gai. Hor, ondoek basoetan duten eginkizun garrantzitsua eta esparru horretan Nafarroan dagoen arautegia aztertuko dute. Saioaren amaieran mahai-inguru bat izango da perretxikoen bilketaren erregulatzeari buruz, kudeaketa-tresna gisa.

Ostegunean, zerbitzuak eta produktuak iraunkortasunez komertzializatzeko moduari buruzkoak izango dira saioak, eta bi gai nagusi izango dira: perretxikoen komertzializazioa eta zerbitzuen komertzializazioa (mikoturismoa).

Ildo horretan, hurrengo urteetarako lehentasunezko lan-ildoak adosteko helburuarekin, irailaren 29an, partaidetza-jardunaldi bat garatuko da: "Nafarroan landa-garapenaren eta mikologiaren alde eginez". Hor, Nafarroan sektore honetan inplikaturik dauden pertsonak eta erakundeek egoerari buruzko gogoeta egingo dute.